



# GIZON NAHIZ EMAKUME, BERDINAK GARELAKO

Aurkezpenak egin ostean, jardunari ekingo dio Gizonen Elkarguneak; etzi onartuko dute taldearen zuzendaritza 5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2009-02-07

VIIURTEA 1.623.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Aduna, Hernialde, Anoeta, Alegia, Gaztelu, Tolosa, Ibarra, Leaburu-Txarama eta Amezketako Udal hautetsiak. I. GARCIA

## HAINBAT UDAL HAUTETSI AHT PROIEKTUAREN AURKA

**TOLOSALDEA** AHTren bultzatzaileen jarrera salatu dute, «informazioa zabaltzearen aurka baitaude»; hainbat ekintza antolatu dituzte 7

## Zazpi milioi euroko aurrekontua aurkeztu du Villabonako Udalak 3

## Asteartean deklaratu du Peio Olanok

**LIZARTZA** Sei urteko kartzela zigorra eta 24.000 euroko isuna eskatzen du fiskaltzak 6



I. GARCIA

**JOXE LUIS URDANGARIN**  
TOLOSALDEA GARATZENEN KUDEATZAILEA

«Pausoak ematen jarraitu behar dute enpresek lehiakor izateko»

**EKONOMIA** Enpresei merkatuan posizio berria hartzen saiatzeko aholkatzen die Urdangarinek 2

**GIPUZKOAKO MOZORRO DENDARIK HANDIENA**

**Jaiak**

Elbarrena Industrialdea  
Tel.: 943 888 232 Zaldibia

Majori 12, Ordizia  
"Umeen denda"

[www.JIAKDENDA.com](http://www.JIAKDENDA.com)

**IHAUTERIAK 2009**

**E Elkarrizketa**

JOXE LUIS URDANGARIN | Tolosaldea Garatzeneko kudeatzailea

# «Enpresek jarraitu behar dute pausoak ematen lehiakor izateko»

**Ekonomia** » Enpresei merkatuan posizio berri bat hartzen saiatzeko eta langabetuei formazioa egitea aholkatzen die garapen agentziako kudeatzaileak.

IMANOL GARCIA

Tolosaldea Garatzen erakundeak kudeatzailea da Joxe Luis Urdangarin (Hernani, 1972). Eskualdeko garapen agentziatik krisi ekonomikoaren inguruan duten ikuspegi azaldu du.

## Nola ikusten duzu Tolosaldeko egoera ekonomikoa?

Analisisa egitea ez da erraza, egunetik egunera ikusten ari garela nola ari den izaten bilakaera. Balaratzen duguna da gure eskualdea nahiko ondo egituratuta dagoela orokorrean. 2007an egin genuen eskualdeko lehiakortasun diagnostia, justu ikusteko sare ekonomikoa nola dagoen. Hor nahiko emaitza ona eman zuen eta zenbait mamu eta topiko, betikoak izan direnak, desagertzen lagundu zuen.

## Zer atera zen zehazki diagnosi horretan?

Industriaren jarduera mota bilakatu egin dela etorkizun eta mugimendu eta hazkunde handiagoa duten sektoreetara. Papergintzak oraindik pisu handia du, baina garai batean papergintzan ari zen asko egun, horretaz gain, beste sektore askotan ari da lanean. Hori esker ikusi da sektore berriak indartzen joan direla, azkenean denak dutela komunean oinarri bat, hau da, tradizio industrialak. Eskualdeko ekonomiaren %45a suposatzen du industriak. Horrek esan nahi du jendea prestatuta dagoela eta ematen duela aukera moldatzeko produktu batera edo bestera. Dena den, Tolosaldea ez dago isolatuta. Horrek esan nahi du, guri, besteei bezala, AEBk doministiku egiten badute denok katarroa harrapatzen dugula.

## Zer egin daiteke horren guztiaren aurrean?

Ikusten dugu Tolosaldea garai batean zegoenaren aldean askoz hobeto dagoela, baina hemen ezin da inor salbatu krisi ekonomikotik. Gauza da zuk ezin baduzu kontrolatu mundu mailako mugimendu bat, gutxienez lortu behar duzuna da mugimendu horrekiko ahaliak eta egoera onenean joatea. Hori nola egiten da? Lehiakorrago



I. GARCIA

bihurtuz eta horretarako neurri batzuk hartu behar dira eta hori bultzatzea da guri tokatzen zaigun lana.

## Eta nola ari zarete zuek lan hori egiten?

Aipatutako diagnosi horretatik atera ziren zenbait ondorio eta gure iritziz ondorio garrantzitsuenetako bat izan zen beharrezkoa zela eskualde mailan lanean ari ginen agente ekonomiko guztien arteko lankidetzak. Horrela denon artean sustatu ahal izateko lehiakortasun handiagoa eskualdeko enpresetan. 2008an Lehiberri foroa jarri genuen martxan, berri-kuntza eta lehiakortasunerako foro bat da. Enpresetako arduradunek, lanbide heziketak ikaste-txez, udalez, Tolosaldea Garatzen bera, Gipuzkoa Berritzen erakundeaz... osatuta dago. Talde horretatik esfortzu guztia egiten ari gara eskualdeko enpresek dituzten beharretara egokitzeko. Bestalde, Tolosaldea Garatzenek sortu du enpresa sail bat 2007ko urrian.

Beti egin dugu lan enpresek eta enpresentzat ere, baina modu puntual batean, eskariaren arabera. Orain sistematikoki egiten hasi gara, ikusten dugulako enpresa txikietan laguntza behar dutela. Laguntza behar dute teknologia eta kudeaketaren aldetik eguneratzeke.

## Eta lan hori egiten ari zarete iritsi da krisi ekonomikoa.

Eta horrek esan nahi du askotan jendearen lehenetsunak aldatu

egiten direla. Lehiberri epe luze-ko planteamendu batean ari baldin bagina, orain baita ere eman behar diogu garrantzia epe motzari, alegia, zulotik ateratzeari. Zentzu horretan ari gara pausoak ematen. Datorren astean Tolosaldea Garatzenek, Lehiberri foroaren laguntzaz, antolatuta du jardunaldi bat Tolosaldeko Institutuan, eskualdeko enpresei begira, momentu honetan gauden egoeran finantziarazko zer herramienta dauden eta haietara nola iritsi jakiteko. **Bankuekin eta aurrezki kutxeekin zer hitz egin duzue finantziarioaren inguruan?**

Eragile guztiak berdina esaten ari dira: erraztasunak ematen saiatu daitezela, ondo doazen enpresak okerrera egin ez dezaten. Gutxienez bidegarritasun bat frogatzen dutenei eta martxan daudenei orain arteko zorpetze maila mantendu. Kontua da momentu honetan proiektuen bidegarritasuna

## Bidegarritasuna frogatzen duten enpresei bankuek zorpetze maila mantendu beharko lieke

bermatzea zailagoa dela. Nahiz eta enpresa ondo joan, ez da aski. Zure bezeroek ere ondo joan behar dute. Orain sei hilabete inongo arazorik gabe saldu zenezake proiektu bat, baina orain esplikatu behar duzu dena oso ondo, baina ez zure proiektua bakarrik, baizik eta zure

bezeroenak eta zure bezeroen bezeroenak ere bai.

## Lanbide zerbitzuaren ardura duzue eskualdean. Nabarituko zen, noski, lan bila dabilen kopurua.

Langabezia eskualdean gutxi gorabehera Gipuzkoaren antzera joango da, eskualde bezala nahiko errepresentatiboak baikara. Ikusten da igo egin dela eta igotzen ari dela. Hemen, guk daukagun Lanbide zerbitzuan, enplegu zentron, lan bila edo lanez aldatu nahi duenak hona jotzen du. Hor somatzen ari gara igoera. Orain gutxi arte langabezi teknikoak genuen. Ikusten da orain dela sei hilabete lan egiteko inongo arazorik ez zuten jendeak, egun zailtasunak dituela. Ideia bat egiteko, urrian eraikitzaileak 132 izan ziren eta urtarriean 255.

## Jendeak eskatzen duen horretan ere aldaketak izan dira?

Bai, aldaketak daude. Lehen alta ematera etortzen ziren Lanbiden, orain gero eta gehiago ari da eskatzen formazioaren inguruko informazioa. Halako etsipen bat somatzen da jendearengan eta pentsatzen du: lana bilatzeko ez da momentu ona eta egingo dudana da formatu eta berziklatu. Urrian 30 pertsona etortzen baziren formazio eske, urtarriean 98 lagun etorri dira. Zentzu horretan gu kontziente gara esfortzu bat egin behar dugula zerbitzuaren kalitatea ez jaisteko. Azkenean estuasun batean dagoenak ezin du itxaron.

## Krisiak zenbat iraun dezakeen aurreikuspenik egin duzue?

Inork ez daki. Oso zaila da faktore berri asko nahasten direlako. Egia da ziklo normal bat izan daitekeela lau-bost urtekoa. Azkeneko krisiari, 90ekoak, buelta ematen hasi zitzaion 94-95ean. Orain gertatzen da dena azkarrago doala eta horregatik ez da behar akada bat izan, zuloa izan da. Horrek esan nahi du suspertzea ere erritmo indartsuago izango dela. Kuestioa da ez dakigula noiz hasiko den. Ikusteko

## Lanbide zerbitzuan erabiltzaile kopurua igo egin da: urrian 132 izan ziren eta urtarriean 255

dago oraindik noiz joko duen lurra. Europako Komisioak esaten du 2010ean buelta ematen hasiko zaiola egoerari. Nik ez dakit noiz izango den, baina agian 2011n izan daiteke.

## Tolosaldea Garatzenen atzean eskualdeko udalak daude. Nola ari dira jasotzen egoera bertatik?

Kezkarekin. 28 udal daude eta hamasei 500 biztanletik beherakoak. Horrelako herri txikietan langabeziaren ondorioak segituan nabaritu daitezke. Udalak kezkatuta daude eta beraiek ere dauden egoeran daude. Ekonomia gaizki joaten denean zergabidez ere gutxiago jasotzen dute. 90. hamarkadako krisiaren ondotik sortu zen Tolosaldea Garatzen. Enpleguari dagokion politikari dagokionez, zentzua du gurea bezalako erakunde baten bitartez egitea eta bere garaian horregatik sortu zen. Bakotzak zaila dauka berak bakarrik egiteko, baina denen artean burutu daitezke enplegu politika aktiboak.

## Zer mezu ematen duzu Tolosaldea Garatzenetik bizi dugun egoera honetan?

Enpresei begira, garbi dugu zein den lehenetsuna, hau da, finantziarioari eustea eta merkatutik aldentu gabe jarraitzea. Baina baita ere egia da horrelakoetan merkatuak ematen duela aukera enpresek beste posizio bat hartzeko. Arriskuak handiak dira krisi garaian, baina aukerak ere askoz nabarmenagoak dira. Orain ondo posizionatzen diren enpresek, gero ekonomia goraka hasten denean abantaila bikoitza izango dute. Guretzako kritikoa da, enpresek orain daukaten kezka horretaz arduratzen formazioaren inguruko informazioa. Halako etsipen bat somatzen da jendearengan eta pentsatzen du: lana bilatzeko ez da momentu ona eta egingo dudana da formatu eta berziklatu. Urrian 30 pertsona etortzen baziren formazio eske, urtarriean 98 lagun etorri dira. Zentzu horretan gu kontziente gara esfortzu bat egin behar dugula zerbitzuaren kalitatea ez jaisteko. Azkenean estuasun batean dagoenak ezin du itxaron.

## Eta lanik gabe daudenentzako?

Aprobetxatu behar dute formazioa egiteko. Gu harremanetan gaude lanbide heziketako zentroekin, berez zeukaten formazioaren eskaintza zabaltzeko. Jendeak egin behar duena da lana bilatzen jarraitu, jakina, baina bitartean berziklatzeko ere aprobetxatu dezakete.



Izagirre, Arretxe eta Ayestaren Gurea aretoan egindako aurkezpenean. I. GARCIA

# Zazpi milioi euroko aurrekontua aurkeztu du Udalak urte honetarako

**Villabona** » Herritarren aurrean aurkeztu du; «arduraz jokatzeko» eta 2008koarekin «oreka mantetzeko» saiatu da.

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalak 2009rako prestatu duen aurrekontua aurkeztu zuen herenegun arratsaldean herritarrei. 7,06 milioi euroko aurrekontua aurreikusitako, ia-koaren parekoa. Aurrekontua egiterakoan «arduraz jokatzeko» eta 2008ko aurrekontuarekin «oreka mantetzeko» saiatu direla azaldu zuten aurkezpenaren ziren

Hautsi Izagirre, Josune Arretxe eta Remi Ayestaran zinegotziek.

Aurrekontuak onartzeko osoko bilkura hilaren 18an egingo dute eta ordura arte herritarrei animatu diete ekarpenak eta kritikak azaltzeko. Iazko aurrekontuak osatzeko inkesta egin zen herritarren artean eta orduan jasotako proposamenak jarraituz ere aurtengo aurrekontua osatu dutela azaldu zuten. Berriz ere herritarrei proposamenak datorren urteko aurrekontuari begira eskatuko zaizkie.

2008ko aurrekontuaren antzeko kopurua izanik, ez dago alde handirik Udalak bideratzeko asmoa dutenekin, gastuei begiratuz

gero. Aldaketak izan diren kontzeptuetan oso txikiak izan dira. Udal Gobernuako kideek nabarmendu zuten aldaketa diru sarretan izan zen. «Eusko Jaur-laritziak eta Foru Aldunditik jasotako dirua asko murriztu da, baina aurrekontua mantentzen saiatu gara», azaldu dute.

## Inbertsioak

Inbertsioen kopurua murriztu egin behar izan dutela adierazi dute. «Ideia asko daude, baina gutxi dira ezin da iritsi», zehaztu dute. Gaztelekuaren proiektua eta obra izango da inbertsioen artean kopuru handiena hartuko duena, 300.000 euro. Haurtzaindegi za-

## » AURREKONTUA

| KONTZEPTUA          | EUROAK    |
|---------------------|-----------|
| Zor publikoa        | 473.643   |
| Udal gobernua       | 141.256   |
| Bulegoak            | 844.136   |
| Zerbitzuak          | 1.248.500 |
| Udaltzaingoa        | 367.599   |
| Gizarte zerbitzuak  | 941.969   |
| Euskara, Hezkuntza  | 740.091   |
| Hirigintza          | 656.977   |
| Kultura             | 819.426   |
| Kirola eta Gazteria | 648.672   |
| Ingurumena          | 178.828   |

GUZTIRA 7.061.101

## » INBERTSIO NAGUSIENAK

| INBERTSIOAK             | EUROAK  |
|-------------------------|---------|
| Izartu pasarela         | 132.000 |
| Olaederran hainbat obra | 118.600 |
| Gaztelekuak             | 300.000 |
| Eskoletako obra         | 120.000 |
| Kale Berriko argiteria  | 70.000  |
| Algibearren konponketa  | 185.000 |

harra zegoen Katea etxean egingo da proiektua. Gazteria batzordea martxan jarri nahi dute eta 12 eta 17 urte arteko gazteen artean prozesu parte-hartzaile bat antolatu nahi dute Gaztelekuaren nondik norakoa zehazteko.

Beste inbertsio nagusienak Salvadora eremuan dagoen algibe edo ur deposituaren berritzea izango da. Bertan erakusgela bat jartzea da ideietako bat. Villabona eta Zizurkil arteko pasarela berria (Izartu proiektuaren pasarela), eskoletako obrak, Olaederra kiroldegiko konponketak, Kale Berriko argiteriaren berritzea dira kopuru handienak hartuko duten inbertsioak.

Kopuru txikiagoa eramango dute beste proiektu batzuk. Esaterako, Salvadoran Udalak duen lokalean jubilatuentzat egoitza egiteko proiektua, haur parkeen konponketaren hasiera, Oinkari dantza taldearen lokalaren egokitzapena, Aizkardi mendi elkartearen obra eta musika eskolaren berrikuntzen aurreproiektua.

## Laburrak

### Errepidea konpontzeko sinadura bilketa

**AZPIEGITURAK** » Tolosa eta Anoeta bitarteko errepidea konpontzeko Foru Aldundiari eskaera egiteko sinadura bilketa egingo dute gaur goizean. Mahai bat jarriko dute Hernialdeko tunela dagoen tokian gaur 11:00etatik 13:00etara.

### Korrika Batzordeen bilerak datorren astean

**AIZTONDO** » Datorren astean Villabona eta Zizurkil Korrika Batzordeak egingo dituzte. Hilaren 10ean 20:00etan egingo dute Zizurkilgo Atxulondo Kultur etxean. Bestalde, Villabonako hilaren 11n egingo dute, 19:00etan, balioaitzetzeko gelan, liburuetegiaren gainean. Korrikako batzordeetatik animatzen diete herritarrei parte hartzeko.

### Ezker abertzalearen batzarra, gaur, udaletxean

**ANOETA** » Anoetako ezker abertzaleak gaur batzarra egingo du 11:00etan, udaletxean. Bertan hauteskondei buruz hitz egingo da. Ezker abertzaleatik deialdia egiten diete herritarrei bilera joateko. Bestalde, jakinarazi dute 148 sinadura bildu direla Anoetan Demokrazia 3 Milioi plataformaren alde. Sinatzaile guztiak eskerrak luzatu dizkiete.

### Kaldereroen kalejira egingo dute hilaren 13an

**IRURA** » Kaldereroen kalejira hilaren 13an egingo dute Iruran. 18:00etan aterako dira kulturune-tik. Kalejiran parte hartzen dutentzat, ondoren txistor jatea egingo dute San Miguel plazan. Bestalde, entseguak antolatu dituzte egun horretarako. Hilaren 12an egingo dute, 19:00etan, kulturunean. Udalak deia egin du herritarrei parte hartzeko.

### Etxebizitza tasatuetako onartuen zerrenda ikusgai

**VILLABONA** » Villabonako udaletxean eta iragarki taulan jendearen agirian daude La Salvadora gunean etxebizitza tasatuen zozketarako onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak. Udaletik jakinarazi dute zozketa publikoa otsailaren 11n, azteazkena, izango dela, 19etan Villabonako Gurea zinemari.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Garbiketak.** Bigi Garbitasunak. Alfontz, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 944 604 edo 695 708 271.

## Oharrak posta elektronikoz bidaltzeko aukeraz galdetu du Udalak

ERREDAKZIOA

Alkizako Udalak jakinarazi duenez, postaz bidaltzen dituen ohar, bando, deialdi eta gainerakoak, posta elektronikoz jaso nahi duten herritarrek buzoietan banatu duten orria bete dezaketela, beraien omiritzia emanez. Eskaria jaso ondoren, Udalak baloratuko du eskaerazaleen kopurua nahikoa den zerbitzua eman ahal izateko.

## Garaipena eta gero, liderraren aurka ariko da gaur Lakunza

**Villabona** » Kukuia garri 4-0 irabazi zioten eta gaur La Bellota talde legazpiarrean aurka jokatu dute etxetik kanpo billabonatarrek.

ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuan Kukuia garri Etxeberrinen aurka 4-0 irabazi ostean, Transportes Lakunza areto futbolako taldeak La Bellota taldearen aurka jokatu du gaur Legezpin (Gipuzkoa), 17:45ean.

Egun talde billabonatarra hirugarrena da sailkapenean, 32 punturekin, bigarrenarekin berdinduta. La Bellota taldea lehenengo postuan dago 33 punturekin. Gaurko partida, beraz, garrantzitsua izango da sailkapenaren lehen postuetarako.

Kukuia garri taldearen aurkako partidaren oso ondo aritu ziren lehenengo zatian Lakunzakoak. Gol bakarra sartu zuten, baina jokoa garbi nagusitu ziren bai defentsan eta bai erasoan. Ibon Aranzabek sartutako golarekin joan ziren

atsedenaldira. Bigarren zatian Lakunzakoek bizkaitarren susperraldia espero zuten, baina hauek esperoan gelditu ziren, kontraerasoan ateratzeko.

Sinoe eta Hautsiren arteko hormabiko baten ondoren, azken honen bigarren gola sartu zuen lau minutu eta erdi falta zirela. Hor partida puskatu egin zen eta bisitariak atezain-jokalaria atera zuten. Lau minutu horietan beste bi gol sartu zituzten billabonatarrek. Golegileak Oskar Urbano eta Juankar Santxez izan ziren.

## Enpresak finantzatzeko bide berrien aurkezpena

**Ekonomia** » Lehiberrik jardunaldi bat eskainiko du datorren ostegunean; finantziarako aukera eta baliabide publikoak agertuz.

### ERREDAKZIOA

Eskualdeko enpresek memento bakoitzean interesatzen zaizkien gaien inguruko informazioz eguneratuena izan dezaten Lehiberrik hitzaldi bat antolatu du. Honekin lortu nahi duena da gaur egungo ekonomian enpresek izan ditzaketen finantziario bideen berri izatea.

Datorren ostegunean gauzatuiko den ekitaldian, ekintzaileek edota enpresek beraien altxortegiak edota egiten dituzten L+I+B ekintzak finantzatzeko, zein baliabide publiko eta aukera izan ditzaketen aztertuko da.

Lehiberri Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntza Foroak, Lanbide Heziketa Eskolek eta Udalek, erakunde publiko bezala eta eskualdeko enpresek osatzen duten foroa da.

### Finantziario tresnak krisialdirako

Ekitaldia hilaren 12an, osteguna, izango da Tolosako Santa Luzia Auzoko 17an kokatuta dagoen Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan.

Ostegunekoan besteak beste, ondorengo lagunek hartuko dute parte: hasteko, aurkezoena eta ongietorria Jon Ander Torrearen es-

kutik izango da. Bera Casa Eceizako Zuzendari Nagusia da, eta Lehiberriko lehendakaria. Ondoren, Migel Angel Hernandez, Elkargiko Merkatu Zuzendaria mintzatuko da. ETE-en finantzia egokitzeko laguntzei buruz hitz egingo du. Izan ere, epe motzerako edota altxortegiaren arazoak izaten ari diren enpresei laguntza eman ahal izateko, Administrazio publikoek, zenbait tresna jarri dituzte beraien eskura.

Berrikuntza sustatzeko diru laguntza programaren adibide praktikoak emango ditu Raquel Abad-ek, ITEC-eko Koordinatzaile Nagusiak. Enpresek I+G+B barne egiten dituzten ekintzak, erakunde publiko ezberdinek sustatutako programen bitartez kofinanziatu litezke.

Bestetik, ekintzaileentzako finantziario bideak zeintzuk diren agertuko dituzte Marisa Arriolak, Bic Berrilan Gipuzkoako Zuzendari Gerentea eta Josean Arratibelak, ADEGI Ekintzailetasun Arduradunak. Ekintzaileei bideratutako programak ere badira, hastapenetan dauden enpresek finantzatu ahal izateko tresnak. Hauxe gain, orain dela gutxi martxan jarritako beste zenbait ekimen ere badaude, esaterako BAN (Business Angels Network) delako sarea, beraien ekarpen ekonomikoaz gain aurrerago doan inbertsio pribatuen sarea alegia.

Jardunaldiari amaiera emateko interesa duten enpresek hizlariekin kontaktu zuzena izateko aukera lutzatuko dute.

## Su-Berriko pilotariek partida ugari dituzte asteburuan

**Pilota** » Hiru txapelketetako partidak jokatu dituzte gaur eta bihar; ezker hormakoan atsedena izango dute.

### ERREDAKZIOA

Su-berri pilota elkarteak neskek hainbat partida jokatu dituzte asteburu honetan. Izan ere, Emakumea pilotariko, Iparraldeko Trinkete Ligako eta Emakumezkoen 2. Diario Vasco sariko norgegiagokak jokatu dira bi egun hauetan. Bestalde, ezker hormako Euskadiko Elkartearen Txapelketan atsedena izango da. Ligaxka bukatu ondoren Su-Berriko neskek finalerdietarako sail-

katu dira. Honenbestez, beste taldeak azken jardunaldia asteburu honetan jokatu dute eta partida hauetako emaitzen ondoren eza gutuko da Su-Berriren aurkariak zeintzuk izango dira.

Emakumea Pilotariko saioetan, Su-Berriko Garmendia eta Garayalde Nafarroako Indurain eta Otegiaren aurka ariko dira gaur, 16:45ean, Aginagan.

Eskualdeko Ane Arteaga eta Maitane Aburuza berriz, Zumaia eta Aranoko Arriona N. eta Zabala-aren kontra ariko dira gaur arratsaldean, Anoetan, 17:00etatik aurrera.

Trinketeko Iparraldeko Liga ere jokatzeko ari da egun hauetan eta hor ari dira jokoan Su-Berrikoak. Gaur 21:00etan, Gaintxikin

(Senpere) Aviron Bayonnaisekoak izango dituzte aurkari.

Azkenik, II. Diario Vasco Sarian, bihar, Hernaniko kiroldegian 11:30etik aurrera, aurrez aurre izango dira Muneta-Bordagaray eta Elguezabal-Arozena.

### Partida garrantzitsua bihar

II. Diario Vasco Sarian, bihar, Hernaniko kiroldegian 11:30etik aurrera, aurrez aurre izango dira Muneta-Bordagaray eta Elguezabal-Arozena.

Norgegiagokak garrantzitsua da biharko lizartatarrarentzat eta bere bikotearentzat. Hauek ligaxkak lehenengo partida galdu ostean, finalerdietarako txartela lortu ahal izateko norgegiagokak hau irabazi beharra daukate.



## Hiriaren iragana ezagutzuz

**TOLOSA** » Aulas Kutxak antolatutako Tolosaren historiaren inguruko ikastaroko lehendabiziko saioa izan zen herenegun Kultur Etxean. Denera hamar saio izango dira eta hauetan, hiriaren iraganarekin lotura duten hainbat gai jorratuko dituzte, besteak beste: Foruak eta hiriaren antolakuntza, eraikinak, kaleak, plazak, Intxur, harrisia eta zubiak... JOXEMI SAIZAR

**ANOETAKO HERRI IKASTOLA**

- 2 urteko gela, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

**MATRIKULA EPEA: Otsailaren 2tik 13ra**

**Matrikulazio Ordutegia:**  
© 943 65 46 13-65 29 32  
9:00-13:00 - 15:00-18:00  
anoeta@ikastola.net

**Irurako Ikastola**

- (2-12 URTE)
- Lehen Hezkuntza

**'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'**

San Migel, 5 • 20271 IRUIRA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserría - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**hirukide**

**KALITATEZKO HEZKUNTZA**

www.hirukide.org

**TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

**samaniego**  
Telefonoa: 943651063  
Webgunea: www.samaniego-tolosa.com  
Posta elektronikoa: 012244oa@hezkuntza.net

- HAUR HEZKUNTZA (2 URTETIK HASITA)
- LEHEN HEZKUNTZA

07:30etik aurrera  
Haur tokoa

**ORXE**  
Telefonoa: 943651387  
Webgunea: www.orixe.net  
Posta elektronikoa: 012980oa@hezkuntza.net

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
- ZEREGINEN IKASKUNTZA GELA
- LAN HASTAPEN EGOKITUA
- BATXILERGOAK

**D EREDUA-KALITATEZKO IRAKASKUNTZA**  
**MATRIKULA EPEA: OTSAILAREN 2tik 13ra**

## Laburrak

### Ibarran, Arriben eta Irurtzunen gaur farmaziak

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** • Ondorengoak dira gaurko goardiako farmaziak Tolosaldean eta Leitzaldean: Ibarran, Euskal Herria kaleko 46. zenbakian dagoen Ugarte, M.T. (943 67 32 74) egongo da. Arriben, Garmendia, A. (Kale Nagusia, 112). Eta Irurtzunen, Gastearena M. (Amaya kalea, 112).

### Zaldunita Bezperako danborradaren entseguak

**TOLOSA** • Zaldunita Bezperako danborradaren entseguak hilaren 9, 10, 11, eta 12an izango dira Kultur Etxean, 20:00etan. Hilaren 17an Gorosabelen 20:00etan izango da. Bestalde, karroza eta konpartsa lehiaketan izena emateko epea hilaren 13an amaituko da.

### «Salbuespen egoera salatuzko» manifestazioa

**TOLOSA** • Ezker abertzaleak deituta, manifestazioa egingo dute gaur arratsaldean Triangulotik abiatuta. 19:00etan izango da, eta *Salbuespen Egoerari Stop. D3M* izango da leloa.

### Drogomenpekotasunari buruzko hitzaldia Orixen

**TOLOSA** • Datorren asteartean, hilaren 10ean, DBHko 1., 2. eta 3. mailako gurasoentzako hitzaldia antolatu dute Orixen institutuak. Drogomenpekotasunen prebentziarako estrategiak izango da gaia, eta 18:30ean hasiko da.

### Inauteriei buruzko hitzaldia Amaratzen, hilaren 13an

**TOLOSA** • Juan Bautista Aranzabe Mate-k hitzaldia emango du datorren ostiralean, hilaren 13an, Amaratzen, Auzo Elkartearen. Hitzaldia solasaldia Inauterien ingurukoa izango da, hainbat arlo jorratuko dituelarik.

# Berdintasuna helburu duen bideari ekingo dio Gizonen Elkarguneak

**Gizartea** » Etzi, astelehenean, Kultur Etxean egingo duten bilera irekian onartuko dute taldearen zuzendaritza.

#### IÑIGO TERRADILLOS

Emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu hartuta, talde berria sortu dute eskualdean, Gizonen Elkargunea. Urtarrilean egin zuten taldearen aurkezpena, eta hainbat herritarrek bat egin nahi izan zuten ekimenarekin, aurrerantzean egingo dituzten jardueretan parte hartzeko asmoa azaldu dutelarik.

Joxe Mari Arakama Gizonen Elkarguneko kideak azaldu bezala, «20-30 lagun inguruk sinatu dute dagoeneko, eta badakigu beste hainbatek sinatzeko asmoa ere baduela». Taldean parte hartzeko asmoa azaldu dutenen artean, adinari dagokionez, «denetarik topa dezakegu, hau da, gazteak eta ez hain gazteak». Dena den, Arakamak esan bezala, hasiberritan baino ez dago taldea, beraz, «jardunarekin hasten garenean eta taldea ezagun egiten denean jende gehiagok sinatzea eta gurekin bat egitea espero dugu». Horixe da, hain zuzen ere, hurrengo pausoa, behin taldea jendaurrean aurkeztu ostean, duten asmoei ekitea, alegia.

#### Indarkeriari atal berezia

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean, atal berezia izango du emakumeenganako indarkeriak. «Indarkeria mota asko daude, eta horietako batzuk, ezkutuan, gainera, eta horiek aztertuz hasi beharko genuke», dio Arakamak. «Gure kulturaren oso barneratua dago gizona ardatza izatea, eta bigarren mailan edo azpian emakumea egotea; beraz, oso



Gizonen Elkarguneko kideak urtarrilean egin zuten aurkezpenean. NOTICIAS DE GIPUZKOA

garrantzitsua da hezkuntzan ere ekitea, izan ere, belaunaldi berriak aurreratuagoak izan arren, erne egon behar da, etxeetan ikasten dituzten rola ondoren nabaritu egiten baita eurengan ere». Horretaz gain, gizartean emakumeak duen papera aztertzea ere beharrezkoa dela dio Gizonen Elkarguneko kideak: «lanean, esaterako, lan berdina egiteagatik emakumeak gutxiago irabaztearena aztertu behar dugu; eta zein rol betetzen duten emakumeek eta zein gizonen ikusi behar dugu, eta betetzen ez den kasuetan, zergatik ez den berdintasuna ematen».

#### Indarkeriaren jatorria

Gizonen Elkargunearen ustetan, berdintasuna helburu duen jardueran ekin aurretik, beharrezkoa da berdintasuna zer den definitzea; «lehendabizi, taldeko kideak bildu eta ados jarri behar dugu berdintasuna definitzerakoan».

Lehendabiziko helburua, beraz, taldearentzat berdintasunaren definizioa egitea da. «Behin definizio

hori eginda, hurrengo pausok eman aurretik ezinbestekoa da emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria gugandik, hau da, gizonengandik datorrela buruan izatea; horregatik, argi utzi behar da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera ez garelako helduko gizonok ez badugu ezer egiten».

#### Lehendabizi hausnarketa egingo dute, diagnostia gero, eta azkenik plangintza burutuko dute

Behin hausnarketa horiek eginda, diagnostia egitearen unea iritsiko da. «Tolosan, nahiz gure eskualdean ematen diren indarkeria mota horiek aztertu eta bildu nahi ditugu eta diagnosi xume batean bildu».

Eta diaganisarekin batera jarduerak antolatzearena ere buruan duten zerbait da. «Horretarako, aurrera begira, erakundeen babesa bilatu nahi dugu», dio Arakamak.

Gizonen Elkarguneari berri dion jarduna burutzeko batzordeak sortuko ditu, alor desberdinak jorratuko baitituzte. Zuzendaritza ere osatu dute, eta hau etzi, astelehenean egingo duten bilera onartuko dute. Tolosako Kultur Etxean egingo dute, 20:00etan hasita, eta herritar orori irekia izango da.

#### Orain arteko erantzuna ona izan da; herritarrak gaiaren garrantziaz konturatzea nahi dute

Taldea aurkeztu zutenetik erantzun ona izan dutela herritarrengeatik azaldu dute, dena den, «beste hainbat gaietarako bezala, axolagabetasuna ere nagusi izan da». Taldearen ustetan, hori ere bada erronka; «jendea konturatzea nahi dugu gai honek duen garrantziaz; hala, poliki-poliki joango gara pauso txikiak emanez eta errealistak izanez, badakigu-eta ez dela erraza izango dugun helburura iristea».



**HITZA**ren harpidetza egiteko:

**902-82 02 01**  
hitza@harpidetza.info

HITZAri buruzko informazioa

Plaza Etxeberri **jatetxea**  
Pedro Mari Otano Plaza Zizurkil

Aste bururako menu beroziak dauzkagu!!!  
Dasta itzazu gure babarrunak osagai guzietekin!!!

943 69 19 36  
Lagunare edo famili bakoari eta alarde egiteko leku aproposa da gure etxea

**LASKORAIN IKASTOLA**

**KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA ETA ELEANITZA 0-18 URTE**

www.laskorainikastola.net tolosa@ikastola.net 943 697 127

**VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**

**JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA**

**Fleming Ikastetxea.**  
Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)  
Lehen Hezkuntza Arrazainen (6-12 urte)  
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691413  
012277aa@hezkuntza.net

**Matrikulazio epea:**  
**Otsailaren 2tik 13ra**

**Eriñbea B.H.I. Villabona**  
**Eriñbea Ikastetxea.**  
Derrigorrezko Bigarren hezkuntza  
Arrazainen (12-16 urte)  
Tel.-faxes: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net

## Sendi Ekintzak gaur, egun osoan zehar, ospatuko du Elkartearen Eguna

**Ibarra** » Goizean hasiko dira ekintzak plazan jarriko duten karpan izango diren umeentzako tailerrek.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Sendi Ekintza elkarteak gaur ospatuko du Elkartearen Eguna. Aurten lehen aldiz egun osoko festa izango da, gainera.

Festa eguna 11:00etan hasiko da umeentzako tailerrek egongo direlarik plazan jarriko duten karpan; 13:00etan toka txapelketa egongo da; 16:00etan Pilota Eskolako haurren erakustaldia antolatu dute, udal txeko paretan izango da eguraldi ona egiten badu eta pilotalekuan, bestela; 17:00etan umeen krossa izango da; eta 19:30ean elkarteko txiriaren irekiera egingo dute.

## Laburrik

### Ondo aritu ziren gimnastika erritmikoko taldeak

**IBARRA** » Pasa den igandean Astigarragan abiarazitako gimnastika erritmikoko denboraldian Ibarrako Belabietako kadeteen taldeak lehen postua lortu zuen; kadeteen B mailako Onintza Odriozolak ere lehen postua eskuratu zuen, Irati Maritxalarrek zortzigarrena eta Onditz de Miguelek hamabosgarrena. Amateurretan Izaro Esnaolak bigarren egin zuen, Miren Ezeizak seigarren eta juvenil A taldean Garazi Eguigurenek irabazi zuen.

### Etxean jokatu du partida gaur Lauburuk

**IBARRA** » Ibarrako Lauburu arotufutboleko taldeak Belabietako kiroldegian jokatu du partida, gaur, 18:30etik aurrera. Arabako Atena taldearen aurkako lehia izango da eta ibartarrek sailkapeneko azken postuetara jaitsi ahal dira galzten badute.

## Hilberria

### JOSEFA ARANBURU GOIKOETXEA

(Jose Ignacio Sukiaren alarguna, "Tio Joxe")

Atzo hil zen, 94 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Seme-alabak: Nekane eta Angel Atxotegi; bilobak: Gotzon, Iker eta Argiñe; birloboak: Ekain; ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zalobisako SANTIAFE parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aizidz aurretik, mila esker.

Helbidea: Eskribau, 58.  
Oharra: gorpua Beasaingo Goierri beilatokian egongo da.



**ZALDIBIA**  
2009ko  
otsailaren 7a

# Asteartean deklaratu du Olanok Entzutegi Nazionallean

**Lizartza** » 6 urteko kartzela zigorra, 24.000 euroko isuna eta 10 urteetan Lizartzara ezin joatea eskatzen du fiskaltzak.

### ERREDAKZIOA

Peio Olano lizartzarrak asteartean deklaratu du Entzutegi Nazionallean Lizartzako alkateak, Regina Otaolak, bere kontra jarritako salaketa dela eta.

EAEko Justizia Auzitegi Goreneko Fiskaltzak eta Otaolaren abokatua, hau da, akusazio partikularrak, sei urteko kartzela zigorra, 24.000 euroko isuna eta 10 urteetan «gertaera izan zeneko lekura» ezin gerturatu izatea eskatzen

dute. Gogoratu behar da, gertaerak 2007. urteko herriko festetan izan zirela. PPko kideak esan zuenaren arabera, Olanok «heriotz mehatxak» egin zizkion eta «Otaolacarbona» zioen kartela eraman zuen. Egun horretan Otaolak eta Udaltzarak Espainiako bandera eskegi zuten Udaletxeko balkoian, behean ikurrinak eskuan zituzten hamarka herritar zuekela. Aferaren lehenik Tolosako Epaitegian epaitu zituzten, nahiz eta gero gertaerak «terrorismo delitu» batekin alde-ratu eta Entzutegi Nazionalera pasa zituzten.

**Olanoren aldeko mobilizazioak**  
Peio Olanoren epaiketa dela-eta hainbat mobilizazio egingo dituzte herrian.



2007an Tolosan izandako epaiketaren ondotik aterako irudia. A. IMAZ

Bihar igandea, 19:00etan, manifestazioa egingo dute herriko plaza-rik abituta.

Asteartean, hilak 10, aldiz, herriko bizilagunari elkartasuna agertzeko Madrilera joango den autobusa abiatuko da 03:00etan Joxe

Mari aparkalekutik. Izan ere, epaiketa 10:30ean izango da Entzutegi Nazionallean.

Bukatzeko, asteartean bertan 20:00etan batzar informatiboa egingo dute herriaren epaiketa jazo-takoaren berri emateko.

## Sutea izan da Irunzubi industrialdean

**Lizartza** » Goik enpresaren pintura kabinetako batek suak hartu eta kate guztira zabaldu zen; eraikineko estalkia ondatu egin zen.

### ERREDAKZIOA

Lizartzako pintura eta galdaragintzako Goik enpresak su hartu zuen ostegun arratsaldean. Lantokia herriko Irunzubi industrialdean dago.

Sutearen ondorioz bi langilek kea arnastu zuten eta zainketak behar izan zituzten, nahiz eta ez zituzten inongo osasun zentroetara eraman behar izan.

Oraindik ere ez dute esan zergatik hartu zuen su enpresak. Sua itzaltzeko Tolosako suhiltzaileak

gerturatu ziren Lizartzara. Antza denez enpresako pintura kabina batek suak hartu zuen lehenik eta sugarrak berehala zabaldu ziren pintura kate osoan zehar.

Sua, gainera, eraikineko estalkira ere zabaldu zen eta guztiz ondutu geratu zen, suhiltzaileek esandakoaren arabera. Era berean, suak metalazko piadak leuntzen dituen beste makina bat ere kaltetu zuen.

### Inguruko beste bi enpresa

Goik enpresan lan egiten duten hamar langileetatik bik bakarrik behar izan zituzten zainketak, nahiz eta inguruan dituen beste bi enpresetako langileak ere lantokitik irten behar izan ziren, izan ere suteak eragindako kea euren eraikinetara ere zabaldu zen.

## Udalak Kukumiku haurtzaindegia handituko du

**Ibarra** » Handitze lanak Inauterietan egingo dituzte eta Partzuergoak ezarritako araudia betetzeko egingo dituztela esan du Udalak.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak jakinarazi duenez, San Inazio auzoan dagoen 0 eta 2 urte bitarteko haurtzaindako Kukumiku haurtzaindegiko instalazioak handituko dituzte eta, bide batez, ikasleentzako plaza gehiago eskainiko dituzte.

Udalak hirigintzako esku-hartze honekin erantzun nahi izan dio ibartarren artean gai honen inguruan antzemandako geroz eta eskari handiagoari.

### 30.000 euro inguru

Kukumiku haurtzaindegiko handitze laneak 30.000 euro inguruko aurrekontua dute eta udal gobernuak premiazko izaera ematea erabaki du. Egokitze lanak hil honen 19tik 24ra bitartean gauzatu nahi ditu Udalak, Inauteri jaia direla baliatuz. Era honetan, «jarduketak ez du eraginik izango haurtzaindegira joaten diren haurren-gan eta gurasoek ere ez dute euren seme-alabak zaintzeko hautabidieren bat bilatzen ibili beharrik izango», esan du Udalak.

Udalaren erabaki hau Partzuergoak ezarritako araudia betetzeko nahietik dator eta «haurtzaindegia egin behar duen egokitzapena betetzea besterik ez da bere funtzionamendua kudeatzeaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailera atxikitako erakunde baina», gaineratu dute.

«Bere garaian Uzturpe Haur Eskola SL elkartearekin kontratua amaitu ostean, Udalak kudeaketa pribatua luzatzeko lehiaketa publiko berri bat ez deitzea erabaki zuen, Eusko Jaurlaritzak sorturiko erakundearen baitan parte hartzea baizik», gogoratu du Udalak.

Horiek horrela, Udalak ez duela erantzukizunik funtzio honetarako esan dute eta horixe dela erabaki hau duen arrazoi nagusia. «Bidezkoa dirudi ezaugarri hauek dituen zentro bat helburu horretarako sortutako erakunde batean sartzeari», argitu dute.

Udalak, era berean, haurren tutoreen erantzuna «oso ona» izan dela azpimarratu du, «kontuan izanik bertan sartu nahi dutenen kopurua geroz eta handiagoa dela», gaineratu dute.

Gauzak horrela, haurtzaindegiko instalazioen handitzeak mar txoan beste 50 plaza gehiago eskaintzeko aukera emango du, Ibarrako Udalak egin dituen aurreikuspenen arabera.

# Hainbat udal hautetsi AHTren aurka azaldu dira

**Anoeta** » AHTren bultzatzaile nagusien jarrera salatu dute, «informazioa zabaltzearen aurkako jarrera» baitute.



Anoetako udaletxean eman zuten prentsurrekoak. I. GARCIA

## ERREDAKZIOA

AHT proiektuaren kontra dauden hainbat Udal hautetsik prentsurrekoak eman zuten herenegun iluntzean. Aduna, Hernialde, Anoeta, Alegia, Gaztelu, Tolosa, Ibarra, Leaburu-Txarama eta Amezketakoak izan ziren eman zuten. Antolatu dituzten ekintzen berri eman zuten, gertakari jakin batzuen aurrean duten jarrera jakitera emateaz gain. Udal hautetsiek lehenik «AHTren bultzatzaile nagusiak eta bereziki EAJ, elkarriketaren

eta informazioa zabaltzearen aurkako jarrera» salatu zuten.

Tolosaldeko euskarazko hedabideek AHTri buruzko eztabaida antolatu nahi zuten eta «alderdi batzuk ezezkotzat eman zuten hasieratik (EA eta PSOE)». EAJk eta

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak baiezkotzat erantzun zuten, «baina EAJk atzera egin zuen azken unean. Nahiz eta EAJk elkarriketara aipatu, ez zuen elkarriketarako aukera aprobetxatu».

«Gogor» salatu zuten ere

«proiektuaren aurkagaudenokisilarazi eta kriminalizatu nahi gaituztela». Momentu horretan, Urbinako gertaerak gogoratu zituzten. «Eusko Jaurlaritzak terroristatzat jo zituen manifestazio bakesku horretan atxilotutakoak eta gainera haien atestatuak Madrileran eraman zituen».

## «Legorretari babes»

AHT proiektua aurrera doa «baina guztiaren indarrari esker atzeratzen ari da». Legorreta-Tolosa zatiaren lizitazio-proiektua irekita dago, eta Goierri adibidez, «lurren desjabetza prozesua aurrera doa. Lurjabeen iritziaz ez diote kasurik egiten eta lanerako eta bizi-tzeko behar-beharrezkoak duten lurretan proiektua inposatzen diete».

Bestalde, Legorretari «babes osoa eta elkartasuna eman nahi diogu», herri-galdeketa egin behar baitute hilaren 15ean.

## Datozen egunetako egitaraua

Tolosaldeko Gazte Asanbladak bizikleta marxa antolatu du «kaltetutako hainbat herritan». Alegiatik hasi eta Anoetara bitarte, beste gauza askoren artean.

Asteartean, AHTri buruzko bideoaren emanaldia eta eztabaida antolatu dute Amaratzen, 19:00etan, 9 eta 10 zenbakiko atarriren azpiko lokalean. Bideo hau, AHT Gelditu! Elkarlanak egindako azken bideoaren emanaldia da: *AHT: zer ari zaizkigu ezkatuzen?* Hilaren 14rako Tolosako manifestazioa antolatu dute (17:00etan) eta Triangulotik abiatuko da.

# «AHT nondik pasako den jakitea eskubide bat da»

**Alegia** » Lurjabeen zuzendutako bilera informatiboan hainbat zalantza argitu ahal izan zituzten.



Kultur Etxean egin zuten bilera informatiboan 18 lurjabe egon ziren, informazioa eskuratu nahian. N. URBIZU

## NEREA URBIZU

AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutako bilera informatiboan izan zen Alegiako Kultur Etxean. Bertan, jendearen kezak argitu ahal izan zituzten Aitorrek eta EHNEko abokatua den Pavel Viñas. Funtsen, bileran lurjabeek dituzten eskubideak jakitera eman zizkieten. «AHT proiektuaren inguruko informazioa jasotzea eta eskatzea lurjabeen eskubideetako bat da: nondik nora doan, distantziak...»

18 bat lurjabe joan ziren bilerara eta kezak bazituzten: «Non lortu daiteke informazioa?». Jendearen ezjakintasuna handia dela ikusi zuten bileran. «Hasiera batean» Viñasek adierazita, «udaletxeetan eskatu behar da eta informazioa emango du izanez gero. Gero, Eusko Jaurlaritzara jo beharko litzateke, Sustapen Ministeritzara. Udaletxeak ez izanez gero». Tolosa esaterako, eta AHT Gelditu! Elkar-

lanak esanda, «ez dago trenaren kontra: kaltetuak galdetzeraz joan direnean erantzuna, ez dakitela izan da». Baina Viñasek «hori gezurra dela» esan zuen, Zizurkilgo kasua ikusi ondoren, «han eman zutelako eskatu zitzaizaien».

«2001etik trazadua erabakita dago». Hori garatzeko emango dituzten pausoak noiz eta nola «ere jakingo dute, dena aztertuta dutelako. Udalek informazio asko

eskura dezaketela ikusita, eman beharra dute».

## «Trenaren alde ala kontra baino, informazioa behar da»

Aitor Esnaola legorretarrak bere kasua azaldu zuen expropiatu bezala. «Trenaren alde edo ez, ez naiz horretan sartuko; nik informazioa nahi dut, nondik pasako den jakin, zenbat metro kenduko dizkidaten eta abar». Kontua da,

duela 10 hilabeteko plana eta oraingoaren artean aldatetako ikusi zituela. «Zein egin behar dute, oraingoa ala lehenagokoa?».

Euskal Herriko geografikoki «nahikoa oztupo ditu nekazaritzarako». 400 kilometroko tren egin behar dute, tunelak, biaduktoak, iturri asko desagertuko dira... Batek baino gehiagok argi zuten tren egin behar duela nahi. Are gehiago; trafikoren inguruko datu bat eman zu-

ten: «Donostian bigarren zinturoia egiten ari dira, trafikoa arintzeko eta Tolosarekin lotzeko. Hirugarren zinturoia planteatzen da ere: AHT beraz, zertarako da? Merkantziarako ez da».

Aitor Sarasola Alegiako alkateak herritarrei, informazioa jaso bezain laister ezagutzera emango duela adierazi zuen.

## Esnaolaren esperientzia

Aitor Esnaolak tren bere lurraldeetatik ez pasatzeko lana egin du. Informazioa eskatu zuen, lehen aldiz duela urte bat. «Bizi genuena txantaila hutsa izan zen: ez bage-nuen sinatzen %40 gutxiago ordainduko zitzaigula esan ziguten adibidez. Beti sinadura bat nahi dute, eta esaten dute ahalik eta gutxien oztopatuko eta kaltetuko dutela lur eremua... Baina ez dakigu zer den ahalik eta gutxien oztopatzeta, bost metro? Hamar?». Behin sinatuz gero, «akabo: nahi dutena egingo dute». Esnaolak udaletxera jo zuen informazioa jasotzeko.

Ondorioa zera izan zen: tren nahi edo ez, informazioa jasotzeko eskubidea du herritarrek, are gehiago lurjabeak direnak, zer egin behar duten jakiteko.

# Olaberriak denborarik onenak lortu ditu Espainiako Txapelketan

## ERREDAKZIOA


Mallorcan (Herrialde Katalanak) jokatzeko ari den Espainiako pista Txapelketan Leire Olaberria, Ana Usabiaga eta Ainhoa Pagola ari dira lehiazten. Olaberriak denborarik onenak lortu ditu, egin beharreko proba guztietan. Ez zuen

bere marka hobetu, baina gutxi-gatik, 3:42:8 egin baitzuen. Finala gaur izango du, Galvez kataluniarren kontra, hain zuzen.

Ana Usabiaga eta Ainhoa Pagola ere ari dira (Tolosa CFko txirrindulariak) eta taldekako abiadura proban garaipena lortu zu-

ten. Beste hainbat final jokatu zituzten atzo gauean.

Usabiaga gaztea final laurdenean aritu zen abiadurako proban. Taldekako jazarpenekoan, berriz, Taldekako jazarpenekoan, berriz, Olaberria eta Usabiaga ari dira eta domina lortzeko aukera handiak dituzte.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



6°  
2°

|         |       |
|---------|-------|
| GOIZA   | EURIA |
| ARRATS. | EURIA |
| BEROENA | 8°    |
| HOTZENA | 5°    |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Martina Esnaola (Ugarte-Amezket).** Ondo pasa familiaren partetik. Aupa amona!



### Urte askoan!

**Irati Rivera Bejarano (Asteasu).** Gaur 2 urte. Ibarrako atton-amona eta familiaren partetik muxu bat.



### Urte askoan!

**Irati Rivera Bejarano (Asteasu).** Gaur gure potxolak 2 urte. Zorionak Asteasuko familiaren partetik.

# Artea kalera atera dute

**Tolosa** » 'Xtrm' artista beasaindarra zuzenean aritu zen atzo Zerkausian koadroa margotzen; jende ugari bildu zen bertan.

### ERREDAKZIOA

Artea zuzenean ikusteko aukera izan zen atzokoan Zerkausian *Xtrm* artista beasaindararen eskutik. Honek zuzenean koadro bat osatu zuen. Hotz zegoen kalean, baina gozo-gozo egin zuen lan artistak Zerkausiko aretoan. Handik igaro zen jendeak ere ikusminez begiratu zuten nola egiten zuen lan. Ekimena GKO Galeriak eraman zuen aurrera, Tolosako Gazteria Sailak lagunduta.

Atzo eginiko koadroa, bere beste hainbat lanekin batera, GKO Galerian (Kale Nagusia, 4) izango dira ikusgai, bertan ezarriko baitu erakusketa bat Beasaingoak. Hain zuzen ere, martxoaren 4ra arte izango da ikusgai. Informazio gehiago topa daiteke erakusketa honen inguruan GKO Galeriaren webgunean, [www.gko-gallery.com](http://www.gko-gallery.com) helbidean.

### 'Xtrm' kalean hasi zen

Paperean eginiko marrazkiak kaleko paretetatan koloreztatuz hasi zen margotzen *Xtrm*. Teknika berriak probatzeko kuriositateak eta ez konformista izatearen emaitza da gaur egun egiten duen lana.



*Xtrm* artista, atzo arratsaldean, lanean Zerkausian. N. LATABURU



Lanaren zati bat dagoeneko egin zuen Beasaingoak. N.L.



Otsailak 14

Inauterietako festa handia  
Brasilgo **inauterietako** ikuskizuna  
eta SanValentin **beroa**

**Striptease** mutil/neska goizeko 4:00tatik aurrera  
Itxierako ordutegi berezia

Otsailak 21

DISKOTEKA saioa

Otsailak 28

SU TA GAREN kontzertua

[www.salamuxu.com](http://www.salamuxu.com)

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI